

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Nafarroak eskaintzen duen bizikidetza-eredua proposatu du Estatuaren egoeraren irtenbide gisa

Nafarroako Lehendakariak nabarmendu du Foru Komunitateko eredia dinamikoa dela eta etengabeko negoziazioan, erantzukizunean eta akordioaren bilaketan oinarritzen dela

Asteartea, 2017.eko azaroak 14

Estatuak bizi duen egoera politikoaren aurrean, Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek Nafarroak eskaintzen duen bizikidetza-eredua defendatu du; izan ere, "eredu zaharkitua izan ordez, gaur inoiz baino gehiago erakusten du duen balioa, egungo foru-eredua dinamikoa baita, etengabeko negoziazioan eta akordio posiblearen bilaketan oinarritua".



Barkos Lehendakaria bere hitzaldian.

Barkosek ondorengoa baieztatu du: "ezbairik gabe, krisirik larriena bizi dugu Espainiako Estatu egungo eredu politikoa osatu zenetik, eta ereduaren erabateko krisia da, Estatuaren beraren krisia".

Era horretan, "politikarik eza eta elkarrizketa falta" salatu ditu. Eta Nafarroako esperientzia kontuan hartuta, Lehendakariak ondorengoa proposatu du: "Espainiako Estatuarekin asimetrikoa den harreman-eredua, eskubideak gauzatzeak duen erantzukizuna bere gain hartzen duten komunitateekin ituna eginaz". "Ez dut emate xebererik edota arbitrariorik adierazten, baizik eta onartutako eskubideen baitan erantzukizunak banatzea", azaldu du. Eta hori guztia honako oinarritzko premisarekin; alegia, Nafarroak beti bete duela ekarpenetik egonkortasunera eta solidaritatera Estatu osoarekin".

Horrela adierazi du Barkosek Madrilgo Villa Magna Hotelean, Europa Press-en informazio-gosarietan zehar, gaur protagonista Nafarroako Lehendakaria izan baita.

Halaber, hitzaldian, Barkos Lehendakariak Nafarroak egun zeharkatzen duen unea azaldu du, eta



Lehendakariak Nafarroako bizikidetza-eredua

adierazi du "krisia hasi zenetik politika aldetik denboraldirik egonkorrean aurkitzen garela"; horrela, adierazle sozio-ekonomiko nagusiak labur-labur erreparatu ditu.

defendatu zuen Madrilén.

Modu horretan, nabarmendu du Nafarroa komunitate kaudimendunena dela, %3,2 hazi delako Estatuko batez bestekoaren ginetik, eta denborazkotasun-tasa Estatu osokoa baino 4 puntu gutxiagokoa dela.

Arlo sozialari dagokionean, itxaro-zerrendak murriztu direla gogoratu du, eta mendekotasunean artatutako pertsonen kopurua %40,9 gehitu dela. 22.000 pentsio LGSra parekatu dira, edo koordainketa farmazeutikoa bezalako aitzindari ez aktiboak aipatu ditu. "Nafarroako azpiegitura sozial nagusia osatzen duten errealitateak dira", eta horiek burutu ahal izateko, "beharrezkoa da aurrekontua diseinatzea eta horren arabera politikak fiskalak egitea", nabarmendu du.

Etorkizunera begira, Barkosek aipatu ditu Nafarroak "optimismoarekin eta ilusioz" aurrean dituen lan-ildoak eta proiektuak; esate baterako, S3ren ezarpena, berrikuntzaren aldeko apustua edo Iruñaren eta Fráncfort-en artean hub berria abian jartzea, besteak beste.

Nafarroa Europar Batasunean

Era berean, Barkos Lehendakariak azpimarratu du "Nafarroa Europar Batasuneko erabaki estrategikoaren eskenatokitik kokatzeak duen garrantzia". Beraz, Euroeskualdearen barruan dauden sinergia guztiak indartzearen aldeko apustua egin du, eta Gobernuaren ordezkariak Bruselan berriro irekitzeak duen garrantzia azpimarratu du. Ildo horretan, ondorengo ziurtatu du: "handinahi handiagoa izatea Nafarroaren erabaki eta eragin eremua Bruselan aldarrikatzerakoan". Modu horretan, honako hau aurreratu du: "Nafarroako Gobernuak Europako instituzioak berritzeko eztabaidan egoteko beharrezko politika guztia burutuko du, Nafarroak ahalik eta eskumenik handiena izan dezan Bruselan".

Europar Batasunaren erronka estrategikoak

Nafarroako Lehendakariak, hitzaldia amaitzeko, haren ustez Europar Batasunak aurre egin beharreko erronka estrategiko nagusiak azaldu ditu; hain zuzen ere, Europak bizi duen krisi politikoari aurre egitea, enpleguaren eta soldata errealitatearen gaineko erronka, ahalegin fiskalaren eta politika fiskalaren izena galtzea gainditzeko erronka, gure herrialdeetatik alde egiten duen talentua berreskuratzea, eta, azkenik, Europako azken erronka nagusi gisa, automatizazioa aipatu du Barkos Lehendakariak.